

1152/2022 EBAZPENA, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen irailaren 2ko 1158/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa bat egin zen Donostialdeko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 9ko EHAA 245 zk eta 2021eko abenduaren 16ko BOEn 300 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliodunek epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 7an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 12ko 13/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horrek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertzeiko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. Eranskina)



Osakidetza

DONOSTIALDEA
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
DONOSTIALDEA

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko maiatzaren 4an

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LLITAGO SOLA.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSALUNEKETA
ESTABLECIMIENTO DE SALUD



I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO OSPITALEKO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIAN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Ana LERSUNDI ARTAMENDI

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



II. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO OSPITALEKO KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Miren Idoia GURRUCHAGA ARRIOLA and.

Ordezkoa: Ana CALVO AGUIRRE and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Adolfo BEGUIRISTAIN GOMEZ jn..

Ordezkoa: Maria Teresa MARTINEZ ZABALETA and

Bigarren batzordekidea

Titularra: Pedro Ignacio RUIZ MONEO jn..

Ordezkoa: Angel HIDALGO GARCIA jn..

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Carlos LOZANO MARIN jn..

Ordezkoa: Begoña BUSTA VAINILLA and.

Laugarren batzordekidea

Titularra: Iñigo ETXEBERRIA FORONDA jn..

Ordezkoa: Ricardo ELORRIAGA GARCIA jn.

Idazkaria

Titularra: Esther LITAGO SOLA and.

Ordezkoa : Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.